

MUTAZI^oAK KALTEGARRIAK
IZAN DAITEZKE IZAKI^oNTZAT,
BAINA EZINBESTEK^oAK
DIRA GURE EXISTENTZIA^oRAKO.

MUTAZI^oRIK GABE EZ LEG^oKE
ALDAKETARIK, ETA ALDAKETARIK
GABE EZ DUGU EB^oLUZIONATZEN.

HI(ZKI)BRID^oAK LITERATURAREN
ETA AH^oZKOTASUNAREN ARTEKO
MUTAZI^oAK DIRA. LETRAK,
SOINUAK, BERTS^oAK ETA IRUDI^oAK
ERALDATZEN DITUZTEN
EKITALDI^oAK.

EMAITZA LITERATURA
MUTANTEAK DIRA, ZENTZU
ZABALENEAN.

Euskararen Etxea
Agoitz Plaza 1 • 48015 Bilbo
Metroa: San Ignazio (Lekeitio irteera)

www.euskararenetxea.eus

Otsailak 27

Buztinezko etorkizuna

Itxaro Borda irakurketan, Ibon RG musikan

Martxoak 25

Muga

Anfetamiña Xabier Montoiaren lehen liburuan
oinarritutako eta Gaztelupeko Hotsak diskoetxeak
argitaratutako egitasmoa

Apirilak 23

Bertso saio literarioa

Mari Luz Esteban, Miren Amuriza eta Maialen Lujanbio

Maiatzak 15

Habiak

Anariren lan homonimoan oinarritutako
arte erakusketa; Anari taldeak
Habiak joko du zuzenean.

Maiatzak 28

Orainmenean

Bertsolaritzaren genealogia feminista
Txakur Gorria Sormen Kolektiboa

ANTOLATZAILEAK



LAGUNTZAILEAK



HI(ZKI) BRI DOAK

Literatura
mutanteak



Otsailak 27
Euskararen Etxean
19:30ean

DO
AN

BUZTINEZKO ETORKIZUNA

Itxaro Borda irakurketan, Ibon RG musikan

Kolapsologoek aipatzen duten munduaren leherketa hurbila dauka ardatz Itxaro Bordaren idazkiak. Kutsadura, gaixotasunak, errepresio soziala, naturaren menderaketa osoa: gure altzairuzko, beirazko eta burdinazko planeta zati honen etorkizuna buztinezkoak baizik ez balitz funtsean? Idazlearen ahots apokaliptikoari sakontasuna ematen dio Ibon RG musikari ospetsuaren Korg sintetizadorearen auhen elektroniko kasik humanoak.

Martxoak 25
Euskararen Etxean
20:30ean

DO
AN

MUGA

Anfetamiña Xabier Montoiaren lehen liburuan oinarritutako eta Gaztelupeko Hotsak diskoetxeak argitaratutako egitasmoa

Xabier Montoiaren *Anfetamiña* liburutik abiatzen da Muga. Poesia, rock musika eta ikus-entzunezkoak batzen ditu. Xabier Montoiaren lehen poema liburua izan zen Anfetamiña, eta Alberto Gonzalez musikariak (Aterkings edo 6nemen9) kantu bihurtu du, Iñigo Romera (Cancer Moon, El Inquilino Comunista), Iñigo Eguillor (Gringo, Trampas) eta Itziar Beristain musikariaren laguntzaz. J.A. Goñi Areta Juxe argazkilaria irudiekin jantziko dute saioa. David Bowiek ilea moztu zuen egunean hasten da historia...

Apirilak 23
Euskararen Etxean
19:30ean.

DO
AN

BERTSO SAIO LITERARIOA

Mari Luz Estebanek kantuan jarriko ditu Miren Amuriza eta Maialen Lujanbio

Idazleak pasarte literarioak irakurri ondoren, hari loturiko gaiak proposatuko dizkie. Hiru ahots elkarlanean. Erregistro guztiak lantzeko ahalbidea ematen du. Bertso-saio baten ohiko moldeak hautsi gabe, literaturaz gozatzeko aukera eskainiko da. Ahots mutazioak.

Maiatzak 15
Euskararen Etxean
19:30ean

DO
AN

HABIĀK

Anariren lan homonimoan oinarritutako arte erakusketa kolektiboa. Anari taldeak *Habiak* diskoa joko du zuzenean.

Musika eta artea lotzen dituen ekitaldia da, zeina Anariren *Habiak* diskoaren inguruan ardatzen den: erakusketa kolektiboa izango da eta diskoan bildutako hamabi kantuen interpretazio plastikoak bilduko ditu – maiatzaren 30era arte izango da ikusgai-. Anari taldeak *Habiak* joko du zuzenean; denbora zeharkatuko duten soinuak. Booktegik, halaber, erakusketari buruzko katalogo-argitalpena plazaratuko du bere plataforma digitaletan.

Sarrera: gonbidapen bidez egingo da.

maiatzak 28
Euskararen Etxean
19:30ean

DO
AN

ORAINMENEAN

Txakur Gorria Sormen Kolektiboa

Bertsolaritzan beti kontatu izan da gizonezko bertsolarien historia. Hala ere, iritsi zaizkigun izen handi horien atzean arakaturaz gero, hainbat eta hainbat plaza-andreren arrastoak agertzen dira. Horregatik, Txakur Gorria Sormen Kolektiboak ahalegina egin du bertsolaritzaren hastapenetatik gaur arteko historia hori zalantzan jartzeko eta bertsolaritzaren genealogia feminista posible bat berridazteko, ikusezin izandakoak ikusaraziz. Emakumez osatutako bertso-saio honetan, bertsolariek genealogia horren parte diren datuak eta gertaerak izango dituzte kanturako abiapuntu. Gainera, berridatzitako historiaren mugari ezberdinetan oinarritutako irudiak egongo dira erakusgai.

